

Urtekaria 2015



Kutxabank. Non duzu gogoak?

Buruan darabilzuna
edozer izanda ere,
kontsulta ezazu Kutxabanken.
Behar duzunerako
mailegu pertsonalak.


KONPROMISOA ETA
PROFESIONALITASUNA





Beste urte bat pasatu da eta urtero bezala aurten ere, zeraindarrok geure urtekaria argitaratu dugu hogeita zortzigarrenez.

Aurten 2014ko Andra Mari jaietatik 2015eko Abuztuaren 31 arteko egunak izan ditugu kontuan. Geuretzat, zeuretzat, guztiontzat prestatu dugun liburuxka hau garrantzitsua da auzolanaren emaitza delako eta urtez urte herriko gertakariak jasotzen dituelako.

Urtekaria herritarrona da eta jende askok parte hartu du urtero legeztatik lanetan. Urtekariko aurreko taldea ekainean desegin ondoren, 2015eko urtekaria ez argitaratzea erabaki zuen. Hori dela eta, beste talde bat sortu eta bi hilabetetan ilusioz, erronkari helduz eta jende askoren laguntzaz lortu dugu eskuartean duzun 2015eko urtekaria egitea.

Urtekarian beti bezala elkarriketa, urteko ekintzak, gure gaia, kolaborazioak eta haur eta gazteen txokoa aurkituko dituzu, ea zure gustukoak diren, gure aldetik hori nahiko genuke!

Argitalpen xume hau banatzeko orduan berrikuntza moduan aipatu beharrekoa da aurten Ze-raingo etxe guztietara bidaliko dugula, herritar guztiek irakur dezagun errazteko.

Horrez gain beti bezala erakundeetara bidaliko dugu eta azkenik eskuragarri egongo da urtean zehar edonorentzat.

Sarrera honekin amaitzeko eskerrak ematea besterik ez zaigu falta, mila esker bihotzez lagundu duzuen guztioi, kolaboratzaileei zein babesleei, eta aurten idaztera animatu ez zaretenei datoren urtean idaztera animatu nahi zaituztegu.

Bitartean ondo izan guztiak!!



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155

joxetelleria @gmail.com

Elkarriketa

MENDARTEKO MAHASTIAK	6
----------------------	---

Urteko ekintzak

EKINTZAK ETA AIPAGARRIAK	9
--------------------------	---

Gure gaia

ZERAINDARRAK XXI. MENDE HASIERAN	23
----------------------------------	----

Kolaborazioak

BEÑAT ZUBELDIA ALUSTIZA: BIONEUROEMOZIOARI BURUZ SOLASEAN...	28
NAHIKARI ETA MAITENA ALUSTIZA ELORZA: ZERAINDARRAK KOREAN	32
TENTSIO HAUNDIKO LINEAREN AURKAKO...	34
BASARTE GURASO ELKARTEA 2014-2015 IKASTURTEA	36
14 URTE GURASO ELKARTEAN	37

Gazteak sortzaile

MAIALEN ALUSTIZA ASEGINOLAZA: "AMAZONASEN GALDURIK"	38
AIZPEA ELORTZA ELORTZA: "SASTA TXAKURTSOA"	39
IRATI SAEZ DE EGILAZ JUNQUERA: "PRESO BATEN MEMORIAK"	40
MAIALEN ALUSTIZA ASEGINOLAZA: "ZERAINGO PLAZA"	42
UXUE SAEZ DE EGILAZ JUNQUERA: "HIZKI ZOPA"	42

BABESLEAK

EGILEA

Oa Kultur Elkartea**Urtekariko lan taldea**

AZALA

2015eko Denbora libreko haurrak, lan taldea eta Izar Foroni Ruiz de Larrinaga

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA

Antza komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA

SS-724-1996

MENDARTEKO MAHASTIAK



Zerain beti egon da lurrari lotuta, hala nola:

Basoak – Egurra

Basoak – Egurra – Ikatza

Lurrak – Baratzeak – Barazkiak – Lekariak

Belardiak – Belarra – Behiak – Txekorrak – Esnea

Belardiak – Belarra – Ardiak – Arkumeak – Esnea – Gazta

Belardiak – Belarra – Astoak

Mendiak – Meatzeak – Mineralak

Sagastiak – Sagarra – Sagardoa

Mahastiak – Mahatsa – Txakolina

...

Lotura hauetako zenbait izan dituzte eta dituzte gaur egun Mendarteko Joxe Mari eta Kontxik.



Joxe Mari Segurako Merkategi baserrian jaioa da eta umetan aitonaren baserria etorri zen bizitzera, Mendarte baserrira hain zuzen.

Joxe Marik, baserri inguruan hiru baserri garai bereizten ditu: Lehenengo garaia, baserrian lan asko egiten zen garaia; uda sa-soiko lanetan, gari jotzen... Bere denboran bere aitona zuen makina erabiltzen omen zuten lan hauetarako, garia jotzeko. Horrek asko errazten omen zizkien lanak. Hau bere haurtzaro eta gaztaroko garaietan kokatzen du.

Bigarren garaia, Gurelesarekin lotuta dago, Mendarte baserriko esnea saltzeko bide berri bezela. Gurelesa sortu aurretik 5-6 errealetan saltzen zen litroa eta Gurelesan hasi zirenean, 4 pezetara igo zuten, hau aldaketa bikaina izan zen. Hasiera oso gogorra izan omen zuten, kooperatiba moduan sortu zuten baserritar kolektiboarentzat, ondorioz lehen hilabetetan dirua jarri behar izan zuten eta gerora kobratzen hasi ziren. Garai hau ona izan omen zen euskal baserrientzat, esne behien inguruan lan egiten zutenentzat. Taldeko etekinak iristen omen zitzaizkien baserritarrei.

Urte onak ere pasa ziren eta esne talde ezberdinak lehiakortasun handiagoa izan zezaten elkartzen joan ziren eta honek baserritarrei galera ekarri zien; produktibitatea gehitu beharra, baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak zorrotzagoak eta exigentzia gehiago... ondorioz, produktore zuzenak, baserritarrak, geroz eta betebeharrak gehiago zituen lehengo diru sarrera berdinarekin, ondorioz aurrera jarraitzeko oso baldintza gogorrak.

Hirugarren garaia, bigarrenaren jarraipen bezela ikusten du Joxe Marik, produkzio on eta kalitatezkoa emateko inbertsio izugarriak egin beharreko garaia, kuantitatiboki hazi beharra, ondorioz lan nekosoagoa, fisikoki baino emozionalki edo mentalki. Kontxi aldiz, Zaldibian jaioa da eta 29 urte zituela ezkondu zen Joxe Marirekin Mendarte baserrira. Kontxiren haurtzaroa eta gaztaroa ere esne behiei lotutako izan omen zen, Zaldibiko kaleetako etxeetan ibiltzen zen esne saltzen; "5.5 pezetan saltzen nuen litroa eta erosleak haserretu egiten ziren Gurelesak baserritarrei 4 pezetan erosten ziolako, hala ere aurrera jarraitu zuten 30 litro esne inguru egunean salduz".

Garai ezberdin hauek pasa eta esne behiak kentzeko asmoa hartu zuten orain 16 urte eta ondoren mahastia aldatu zuten.

Ba al zegoen lehen mahastirik Mendarten?

Soroan ez, baina etxekeo paretan mahats gorriska zegoen.

Nondik eta nora mahastiaren ideia?

Lagun batzuekin komentatu eta ideia gustatu eta hasitakoa da mahastiaren ideia.

Aipatu behar da Zegamar batek ere asko lagundu zigula lehen txakolina egiten eta hark ere animatu gintuela.



Noiz aldatu zenuten lehen mahastia eta zenbat mahasti dituzue?

Lehen mahastia orain 15 urte aldatu genuen, beti gustatu izan zaigu lurrarekiko lotura eta esne behiak kendu ondoren lotura horrekin jarraitzeko bide bezela aukeratu genuen. Lehenengo mahastia aldatu eta denominazio edo izen baten barruan sartzea behartuak geundela esan ziguten eta aukera ezberdinak landu ondoren Getariako izenaren barruan sartu ginen.

Gaur egun hiru mahasti ditugu garai ezberdinetan aldatuak eta bertan aldatuta dagoen mahast mota Hondarribi zuria izenarekin ezagutzen dena da.

Zein garai da mahastiak aldatzeko egokiena?

Ez dago garai jakinik, aldatu ondoren eguraldi ona egitea komeni da. Gure hiru mahastiak garai ezberdinetan aldatuak dira; lehenengoa martxoan, bigarrena uztailan eta azkena ekainean, ez diegu ezberdintasunik nabaritzen.

Zein lan sortzen dira urtean zehar mahastien inguruan?

Mahastiek lana ematen dute baina ez da lan penoso, ganaduekin baino libertate gehiago ematen du, egunerokotasuneko lotura hori ez da horren bete beharrekoa.

Urtean zehar bi podatzeko aldi izaten dira; bat udazkenean zotz handiak kentzen direneko, hauek sutarako erabiltzen dira. Eta bestea, udaberrikoa, hauek adartxo berriak dira eta mahastian bertan lurrean desegiten dira.



Podaketaz aparte, alanbreetan lotu, inguruko belarrak moztu etab. ere egin behar izaten da. Momentu batzutan botikaren bat ere bota beharra izaten da zorriteren bat edo gaitzen bat baldin badu mahastiak.

Eta mahats biltzea nola izaten da?

Urtean behin izaten da eta mahasti guztietan garai berdinean egiten da, mahats dena batera heltzen delako, berdin dio mahastia noiz aldatua den. Biltzeko garai hau iraileko azken asteetan edo urriko lehen asteetan izaten da. Garai honetan oso kontrolatua eduki behar da mahatsa, bestela pasa egiten da. Mahatsari jaso aurretik, azukrea neurtzen zaio eta horren arabera erabakitzen da jasotzeko moduan dagoen edo ez. Mahasti bateko lehen jaso aldia, aldatu eta hiru urtetara egiten da. Gero hortik aurrera urtero biltzen da. Aurtengo denboraldiko mahatsa, goiz etorriko denaren ustea dago egin duen eguraldia ikusita.

Mahatsa bildu ondoren zer?

Mahats biltzea egun osoko lana izaten da eta kuadrila polita elkartzen da. Mahatsa kaxatan jasotzen da eta zatirik haundiena

Getariako izenean dagoen txakolindegia batek eramaten du eta bestea etxerako geratzen da.

Kaxa horietako mahatsa, makinan txikitu, tolarera bota, presatu, zuku atera eta zuku hau 3-4 egunez ontzi zabal batzuetan uzten da leku fresko batean. Ondoren barriketan sartu eta fermentatzen uzten da. Fermentatu ondoren hilabetetik aurrera uzten da barrika itxita eta gero botilatan sartu. Horrela bisitaren bat dutenean etxeko produktu bat dugu eskeintzeko!

Zein da txakolin on baten sekretua?

Ondo fermentatu izana eta horretarako txakolinarentzat den legami berezi bat botatzen da, horrela fermentazio on bat izateko.

Aurrera begira nola ikusten dituzue Mendarteko mahastiak? Eta lehen sektorea orokorrean?

Mahastiena "hobi" bezela hasitakoa da eta piskanaka gehitzen joan dena, hemendik aurrera ere gure hobiarekin jarraituko degu. Lehen sektorea berriz, eta konkretuki baserritarrena ez da erreza ikusten, prezio duin batzuen beharrean dago baserria, baserritarra, eta horretarako bideak egin behar dira.

Ekintzak



Andramari jaiak 2014

2014ko Andramariko jaiak denok elkarrekin ospatu genituen. Beste urteetan bezala programa betea eta parte hartze handia egon zen.

Hainbat ekintza izan ziren: gibel jana, umeen eguna jolas eta jaialdiarekin, herriko pilota txapelketa, bola txapelketa, dantza soka, txakolin dastaketa, txekor jana eta sagardo dastaketa, herri kirol saioa, asto karrera ... eta musika talde desberdinek gauak kolorez bete zituzten.



2014ko Irailetik- abendura

ARANTZAZUKO PEREGRINAZIOA



Irailaren 6an egin zen urteroko Arantzazurako peregrinazioa. Beti bezala, batzuk Zeraindik bertatik oinez abiatuta, eta beste batzuk autobusean Aldaolara gerturatuta. Elkarrekin bazkaldu eta egun ederra pasa zuten.

AZOKA EKOLOGIKOA



Irailaren 21ean produkto ekologikoak, artisautza, erakusketak eta tailerrak egon ziren aurtengo azoka ekologikoan.



Arratsaldean herri kirol saioan saltsa eta ikusmina jarri zuen Astigarragako nesken eta Zeraingo mutilen arteko giza-proba desafioak. Kasu honetan, neskak garaileak. Zorionak.

KULTUR ASTEA AURRERA



Urriaren 18an hasi zen aurtengo Kultur Astea, herri-mugarriak ikusteko mendi ibilaldiarekin, haurren marrazki saioarekin eta patata tortilla lehiaketarekin. Urriaren 19an jubilatuen eguna izan zen eta 20an hasi eta 24a bitartean hitzaldi, mahi inguru eta bideo emanaldiak izan ziren.

EUSKARAREN EGUNA



Abenduaren 3an, Euskararen eguna ospatzeko, ipuin errezitaldi-poteoa egin zen Xabier Mendiguren Elizegi idazlearekin. 50 herritar inguru elkartu ziren ipuinak entzutera.

LUIS AIZPEOLEA OMENDU



Abenduaren 8an, 2014ko Bola eta Toka Eguna ospatu zen 52 parte hartzaileekin. Gipuzkoako bolari eta tokalariak bildu ziren Zerainen, eta, txapelketa amaituta, Oiharte sagardotegira joan ziren bazkal-tzera. Aurtengoan bi bolari omendu zituzten: Luis Aizpoelea zeraindarra eta Jose Antonio Ugarteburu ezkiotarra.

TXISTOR JANA



Abenduaren 19an iluntzean, Santo Tomas egunaren aitzakian, aurreko urtean bezala antolatutako txistor jana egin zen plazan.

GABONAK




Abenduaren 24ean beti bezala bi talde atera ziren Gabon egunez kantuan etxetz etxe. Handiek, etxe guztiak pasa zituzten eskean, eta guztira 2.124,40 euro bildu zituzten. Bildutako diruaren erdia kultur

etxeko urteko ekintzak antolatzeko eta beste erdia beharrean daudenei laguntzeko bideratu da Caritesen bidez. Eskolako haurrak ere ateraziren goizez eta 1000 euro inguru bildu zituzten. Jasotakoa, kasu honetan, Guraso Elkarteak nahiz eskolako beharretarako izango da. Iluntzean berriz, Olentzero etorri zen Zerain haurrentzako gozokiekin eta nagusientzako gaztain erreekin. Ongi etorria eman genion kantuz.

2015ko Urtarriletik - abuztura

TXOTX DENBORALDIA!!!



Urtarrilaren 16an ireki zituen ateak Otaizak, horretarako bertaratu ziren intxaurrak txikitzen munduko errekorra duen Juan Karlos Diez Soto Ormaiztegiarra eta ETB1eko "Gu ta Gutarrak" saioan parte hartzen duen Amaia Puertas. Oiharten bestalde, urtarrilaren 17an ireki zuten txotx denboraldia, Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariak lagun. Bietan trikixaren doinuak izan ziren lagun herriko Mikel Oria eta Andoni Alustizaren eskutik.

SAN SEBASTIAN EGUNA ETA INAUTERIAK



Urtarrilaren 20an San Sebastian eguna ospatzeko, eskolako eta haur eskolako haurrek danborra jo zuten. Otsailaren 13tik 17ra bitartean inauteri ospakizunak izan genituen.

SAN BLAS EGUNA



Urteroko lege, otsailaren 3an, San Blas eguna ospatu zen. Lehenik meza egin zen ermitan eta gero merienda Liztormendi elkartearen.

TUTE ETA MUS TXAPELKETA



Otsailaren 7an jokatu zen Liztormendi Elkarrekin urtero antolatu ohi duen tute txapelketa. 12 bikotek hartu zuten parte bertan eta Koldo Aizpeolea zeraindarra eta Unai Oiarbide segurarra izan ziren garaile. Otsailaren 21ean Mus txapelketa jokatu zen 15 bikoten artean eta Mantecon anaiak izan ziren garaile.

HERRI ANTZERKIA



Martxoaren 7an "Bihar biharkoak" obraren estreinaldia egon zen Zeraingo elizan. Izugarriko arrakasta eduki zuen Zeraindarrak antzeztu zuten obrak. ZORIONAK parte hartu zuten guztioi.




Oiharte

Nekazalturismoa eta sagardotegia

Maria Luisa Urrestarazu

20214 Zerain

Tel: 680 171 291

KORRIKA

Azken urtetan bezala, aurten ere Zeraindik pasa da 19. korrika. Martxoaren 23an goizeko hiruretan Otatzatik hasita eta Kalpatxoraino testigu eraman genuen eskuz esku hainbat herritarrek. Egun horretan bertan, arratsaldeko lauretan Korrika txikia egin zuten haurrek, irakasleek eta gurasoak lagunduta.

EMAKUMEN EGUNA

Martxoaren 8a ospatzeko, martxoaren 13an Onintza Enbeita bertsolariak "Emakumea eta plaza publikoa" hitzaldia eskaini zuen bertsolaritza oinarri hartuta

AIZKORA TXAPELKETA

Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketa jokatu zen apirilaren 18an Zeraingo pilotalekuan. Urrezko aizkolarien artean Xabier Dorronsoro herritarra ere.

SAN ISIDRO EGUNA

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatzeko afaria egin zen Oiharten.

SAN JOAN EGUNA

Ekainaren 23an San Joan bezpera ospatzeko umeen dantzak, Uharka abesbatzaren abestiak, sua eta bukaeran betiko mokadua egon zen plazan nahi zuten zeraindar guztientzat.

**Tellerine Baserria**

Nekazalturismoa

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpe auzoa

20214 Zerain

Tel: 943 582 031

JUBILATUEN IRTEERA



Uztailaren 18an izan zen aurtengo jubilatuen irteera. Eguraldi ona eta talde txikia izanagatik aurren, ikaragarri ondo eta giro ederrean joan zen Blibora egindako txangoa.

MUTILOARA JAITSIERA



Trikitixa eta panderoarekin jaitsi ginen Mutilora 50 zeraindar inguru, ekainaren 27an. Bertan Mutiloko eta Goierriko jendearekin eta zeraindik bere kabuz jaitsi zirenekin elkartuta denok aukera eduki genuen sagardoa probatzeko eta ondo pasatzeko.

UDAKO DENBORA LIBREA



Ekainaren 24tik Uztailaren 24ra beste urteetan bezela udako denbora librea antolatu dute herriko gazteek herriko haurrentzat eta tartean Porrotxen bisita izan zuten. Goizez zaintza zerbitzua eta eguerdiz jangela zerbitzu ere izan zuten.



ALKATEEI OMENALDIA

Herri eredu babesteko eta trantsiziotik Zerainen egon diren 5 alkateei omenaldia egiteko herri bazkaria egon zen. Jende asko elkartu zen frontoian bost alkateekin: Antonio Gartzia, Iñaki Berasategi, Antton Alustiza, Jose Manuel Oria eta Haritz Iztueta. Giro polita eta festa ederra.

ARALARGO BEASKINERA



Aralarko Beaskinera mendi irteera: uztailaren 26an Jon eta Martinaren txabolara mendi irteera antolatu zen. Ia berrogeita hamar lagun elkartu ziren, eguraldia lagun Aralar alderako irteeran.

JUBILATU ETA HERRITARREN IRTEERA

Abuztuaren 27an, herriko jublatu batzuk beste hainbat herritarrekin Nafarroa aldera joan ziren eguna pasatzera.




Izal Imaz eta Contreras

Pintura eta papergintza

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 049 / 943 187 045

2015eko Andra Mari jaiak





JAIK

Abuztuaren 13an iluntzean hasi eta 17an arratsaldean amaitu ziren 2015eko Andra Mari jaiak. Egun guztietan izan zen zer ikusi, jan-edan, entzun etab. egiteko aukera. Horixe ageri da argazkietan.





aipagarriak

2014ko Uztailetik - abendura

HERRI-KIROL APUSTUA GARAILEAK



2014ko uztailetaren 31n San Inazio eguna ospatu zuten Urbian. Eguerdia partean herri-kirol apustua egin zen Zerain Zegamaren kontra. Zorionak Zeraingo gazteei.

ZORIONAK JABIER MUÑOA TXAPELDUN



Basazabalgo Jabier Muñoa izan zen garaile irailaren 7an Legazpin egin zen Gipuzkoako Artzain Eguneako gazta-lehiaketan.

ZERAINDARRAK IGARTUBEITIN



Lihoa lantzen zikloaren barnean, Igartubeiti baserrian izan zen Zeraindar talde-txo bat irailaren 7an lixiba nola egiten den eta garai batean arropak nola garbitzen zituzten ikusten eta ikasten.

UEMAREKIN BATERA



Euskal Herriko lau herrialdeetako udalek biltzen dituen mankomunitate bakarra UEMA da. 1991 urtean hamazazpi udalek sortutako mankomunitatea, lur-

gune euskaldunetako 72 udalerrik osatzen dute gaur egun eta 2014ean Zerain ere sartu da. Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean diharduen erakunde publikoa da UEMA.

ASIADIKO GUNEA



Auzolanaren bidez, bukatu da Jauregiren eta Gurea Taldeko blokeen artean dagoen zatia, gozatzeko, jolasteko, atseden hartzeko nahiz mokadutxo egiteko.

GOIERRIKO HITZAREN 10. URTEURRENEKO FESTAN



Urriaren 4an, Urretxun egin zen Hitza-ren 10. Urteurren festan Zeraingo neska-mutikoak eszenatoki gainean izan ziren Pirritx, Porrotx eta Marimototx pailazoe-kin. Kanta eta dantza ederki egin zuten gure neska-mutilek.



Arakama

Sukalde gunea

Nafarroa etorbidea, 32

20200 Beasain

www.arakama.com

GOI TENSIOKO LINEAREN KONTRAKO LANA

Itsaso eta Deikaztelu lotutako dituen Goi Tensioko linearen aurka hainbat ekintza egin ziren. Proiektua behin betiko bertan



behera uzteko eskatzeko protesta egin zen urriaren 25ean Donostian. Nafarroako eta Goierriko hainbat herritatik etorritako jende andana elkartu zen udaletxe aurrean eta gero Kontxako hondartzara joan ziren argazki erraldoia ateratzera. Tartean ziren Zeraindarrak ere.

GURE ESKU DAGO HAINBAT EKINTZA



2014ko azaroan Gure Esku Dagok hamar mila lagun bildu zituen Donostian, erabakitzeko eskubidearen aldeko mossaiko batean. Euskal Herriko talde guztietako jendeak hartu zuten bertan parte, baita Zeraindar taldetxo batek ere. 2015ko apirilaren 25ean, oihal-jostea egin zen plazan eta 21ean Donostiara joan ginen hainbat zeraindar gure lana beste herriko lanekin bateratzeko eta Anoetako ekitaldian parte hartzeko.

BIOMASA PROIEKTUA



Urte bukaeran frontoi ondoan hasi zen biomasa proiektuko lehen fasea oraindik bukatu gabe dagoena.

2015ko Urtarriletik - abuztura

ZERAINEK 400 URTE AURTEN



Aurten Zerainek 400 urte betetzen ditu Seguratik banandu eta udalerri gisara sortu zenetik. Ekintza ezberdinak egongo dira Zeraindarraren artean eta bailarakoekin ospatzeko urte osoan zehar. Lehenengoa Santa Ageda bezperan izan zen.

EUSKARAREN ALDE



Otsailaren 28an Zeraindik ere joan ginen Donostiara, UEMA eta Kontseiluak deitutako "Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara" manifestazioan parte hartzera.



Ostatu Jatetxea

2014 Zerain
Tel: 943 801 799

SAGARDO KATA LEHIAKETA

Goierriko hainbat elkarte gastronomikoren arteko III sagardo kata lehiaketa otsaila eta martxoaren bitartean antolatatu zuen Oihartek.

"BIZI BARATZA" LIBURUA



Apirilaren 27an Jakoba Errekondok Bizi Baratza ondu berri duen liburua aurkeztu zuen Zerainen.

BOLALEKUAK ANTONIO ALUSTIZAREN IZENA IZANGO DU



Maiatzaren 30ean Zeraingo bolalekuari Antonio Alustiza zenaren izena jartzeko ekitaldia egin zen, berak bolatokia zaintzen egindako lan guztiagatik eta bolari aparta zelako.

OSTATUN KUDEAKETA BERRIA



Uztailaren 16an irekiera ofiziala izan zen beraiek eskainitako afarimeriendaren bidez. Ongi etorri herrira Ruben eta Lurdes!

KANPOTARREN EZKONTZA



Abuztuaren 27an Errusiako bi herritar, Igor eta Alexander, Zeraingo udaletxean ezkondu ziren. Zerainen lehenengo ezkontza homosexuala izan zen.

BASAZABALEK GREAT TASTE AWARDS 2015 SARIETAN HIRU IZAR LORTU DITU

Erresuma Batuko sariketa horretan 10.000 hautagai izan dira eta horietatik lehen 50. artean (top 50) geratu da Jabier Basazabalek egindako gazta. Euskal Herriko bakarra izan da eta dakigunez Estatu mailan ere ez du beste inork lortu lehen 50. artean egotea. 40 lagunez osatutako epai mahaia munduko bazter guztietako perfil desberdinetako jendeak osatu du, kazetariak, sukaldariak, kritikoak... Zorionak Jabier!



Otatza Sagardotegia

Joxe Antonio Iparragirre

20214 Zerain

Tel: 943 801 757

HAUTESKUNDEAK

2015eko maiatzaren 24ean, beste herri guztietan bezala, Zerainen ere Foru eta Udaleko hauteskundeak eduki genituen. Lehenengo aldiz udaleko hauteskundeetan herriko zerrenda bat baino gehiago aurkeztu ziren (ZHK eta EHBILDU) eta hori ikusita, ZHK zerrenda-kideek erretiratzea erabaki zuten, azkenik herriko zerrenda bakarra aurkeztu zen. Hauteskundeetako emaitzak hauek izan ziren:

FORU ALDUNDIKO EMAITZAK

ZENTSUA 202

Boto-emaileak	136
EHBILDU	61
EAJ	56
Irabazi	2
PODEMOS	1
PSE-EE/PSOE	1
ZURIAK	5
NULUAK	10

UDALEKO EMAITZAK


ZENTSUA 203

Boto-emaileak	64
EHBILDU	59
Nuluak.....	5



UDALAREN OSAERA

Ekainaren 13an, udal berria osatu zen pleno ireki batean. EhBilduk 7 zinegotzi lortu zituen, baina 4 zinegotzik hartu zuten kargua, beste hiru zinegotziak herritarren esku utziz.



2014-2015 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

IKASLEAK: Aetz Elortza Altuna, Paule Itueta Etxenautia, Eneritz Aizpeolea Gereñu

IRAKASKALEA:

Naiara Gabilondo Maitane Sanchez, Karlota Berasarte eta Luke Ayastuy



2014-2015 IKASURTEKO HERRI ESKOLAKO HAURRAK

IKASLEAK: Oihan Telleria, Lur Elortza, Adei Larrea, Enara Aizpeolea, Ekhi Urteaga, Elorri Harreguy, Maddi Telleria, Amets Ojanguren, Aritz Larrea, Irati Eguren, Oihan Ansoleaga, Julen Aranburu, Harriet Apaolaza, Nora Iztueta, Ekain Ansoleaga, Itxaso Lazkanoiturburu, Aner Ormazabal, Aimar Ojanguren eta Elene Iztueta.

IRAKASLEAK:

Miren Odriozola, Miren Makibar, Maiana Belaunzana, Josu Mendia eta Alaitz Makatzaga.



Udal gobernu berriaren osaketa oraingoz, hauxe da:

Arantza Ruiz de Larrinaga..... Alkatea
Jose Mari Apaolaza 1. Alkatea ordea
Amaia Junquera 2. Alkate ordea
Javier Aizpeolea Zinegotzia

BIZTANLEAK

2013ko abenduaren 31an, 254 biztanle zituen Zerainek
2014ko abenduaren 31an 256 biztanle, 2 gehiago eta
2015ko abuztuaren 31an 260 biztanle.

HERIOTZAK


Ines Apaolaza Goya	(2014 / 01 / 28)	84	urterekin
Milagros Telleria Azurmendi	(2014 / 03 / 24)	86	urterekin
Antonio Alustiza Telleria	(2014 / 09 / 16)	82	urterekin
Jose Arrondo Oria	(2014 / 12 / 16)	72	urterekin
Juan Mari Alustiza Muñoa	(2015 / 03 / 23)	62	urterekin
Patricio Aroztegi Arrondo	(2015 / 03 / 24)	85	urterekin
Gregori Telleria Mintegi	(2015 / 08 / 06)	93	urterekin
Juana Alustiza Arostegi	(2015 / 08 / 27)	89	urterekin

JAIOTZAK

Nahia
Dorronsoro Aldasoro
(2014/07/24)




Inge
Ormazabal Makatzaga
(2015/01/23)




Paule
Iztueta Etxenautia
(2014/11/12)



Maialen
Ojanguren Katarain
(2015/05/27)



Leire
Apaolaza Lopez
(2015/01/12)



Joane
Apaolaza Lopez
(2015/01/12)



Maria Aizpeolea Zeraindarrak 100 URTE

Ansostegi baserriko Maria Aizpeolea Mendizabal Zeraindarrak, 100 urte bete ditu Argentinan. 1915ko apirilaren 28an jaio zen, gaur egun Adelaida Aizpeolea Altza eta bere senarra bizi diren baserrian.

Gazte joan zen Argentinara, 18 urte zituela, 1933. urtean, han bizi zen izebarengana. Eta han ezkondu zen jaiotzez Idiazabaldar batekin. Urte guzti hauetan familia handia sortu da, eta gaur egun bost belaunalditako familia osatu dute, hereniloba berri batekin. Maria, Bahia Blancan bizi da Buenos Aires hiriburutik iparraldera 5-6 orduara.

Urtebetetze ospakizun ederra antolatu diote Argentinan, eta aipatzekoa da Euskal Herritik zuzenean joandako 10 bat senidek, horien artean Adelita eta bere senarrak, parte hartu dutela bertan.

Zorionak Maria Zeraindar guztion partetik!!!
(Argazkian Maria eta bere bi seme ageri dira)

Zeraindarrak XXI. mende hasieran

Aurten Zerainek 400 urte bete ditu, 1615ean lortu baitzuen herri izatea. Herri eta komunitateen egoera aldatzen doan bezala, komunitatean bizi diren herritarrak ere etengabe doaz aldatzen askotan konturatzen ez bagara ere. Polita litzateke orain duela 400 urteko zeraindarrak nolakoak ziren jakitea, zer jaten zuten, zertan lan egiten zuten, nola dibertitzen ziren, zergatik hiltzen ziren jakitea adibidez. Horren urruti joan gabe, errazagoa den bestelako ariketa egin dugu: nolakoak gara zeraindarrak herria sortu eta 400 urte beranduago, alegia, XXI. mendearen hasieran? Galdera horri erantzuten saiatu gara eta hemen duzu horren inguruko hainbat datu eta hausnarketa.

2015ean herrian erroldatutako datuei erreparatuta 262 zeraindar bizi gara Zerainen, 141 emakume eta 121 gizonezko. 250eko langa pasatuta 300ekora gerturatzen ari gara baina oraindik urruti gaude.

GUZTIRA			
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
0-12	23	15	38
13-17	6	2	8
18-30	10	16	26
31-64	71	57	128
+65	31	31	62
Guztira	141	121	262

Emakumezkoak gehiago gara adin tarte ia guztietan, salbuespena 18-30 adin tartean, 10 emakumezko eta 16 gizonezko gara eta. Beste tarte guztietan gehiago edo berdin, 65 urte baino gehiago dituztenen artean 31 emakume eta 31 gizonezko gara, daturik orekatuena.

Alde handiena 0-12 eta 31-64 adin tartetean ikusten da, haurren artean 23 neska daude eta 15 mutil. 31-64 adin tartean 71 emakume eta 57 gizonezko.

Adinari erreparatuko diogu segidan, 0-12 adin tartea, haurrena, indartsu datorrela ikusten da, azken urteetako joera hautsiz.

0-30 adin tartean 72 lagun gara, 31-64 adin tartean 128 gara, eta 65 urte edo gehiago ditugunak 62 gara. Jubilatu baino gazte gehiago gara Zeraindarrak gaur egungo argazkian.

Pertsonen mugimendua etengabea da, herri batetik bestera, eskualde batetik bestera, eta baita herrialde batetik bestera ere. Zerain ez da salbuespena eta zeraindarrak jatorri aniztasuna ezagutzea interesgarria izango zaigu. Zenbat zeraindar jaio ote gara bertan eta zenbatek egin dugu bertara etortzeko hautua beste nonbait jaio eta bizi ondoren. Ba al dakigu zein herritatik etorritakoak garen? Ea ba, ikus dezagun:

ZERAINEN JAIKAK			
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
0-12	22	13	35
13-17	4	1	5
18-30	9	10	19
31-64	23	16	39
+65	16	21	37
Guztira	74	61	135

ZERAINDIK KANPO JAIKAK			
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
0-12	1	2	3
13-17	2	1	3
18-30	1	6	7
31-64	48	41	89
+65	15	10	25
Guztira	67	60	127









135 gara Zerainen jaiotako zeraindarrak Zeraindik kanpo jaiotakoak baino zortzi gehiago. Beraz, esan daiteke Zeraindarren ia erdia beste nonbait jaio eta zeraindartutakoa dela datuak erreparatuta.

Adin tarteka aztertuta, 0-30 adin tartean eta 65 urte edo gehiago dituztenen tartean nabarmen gehiago gara bertan jaiotakoak, 31-64 tartean joera oso bestelakoa da, 89 zeraindar jaio gara kanpoan eta erdia baino gutxiago, 39, bertan.

Sexuari erreparatuta, datu hauek hartu dute gure arreta, 65 urte edo gehiago dituztenen tartean bertan jaiotako edo kanpoan jaiotako emakumezkoen kopurua antzekoa den bitartean 16 eta 15, 31-64 tartean bikoiztu egiten dela kanpoan jaiotako emakume zeraindarren kopurua, 23 eta 48. Eta gizonezkoen kasuan oraindik gehiago, 16 dira bertan jaiotakoak eta 41 kanpoan. Baina 65 urte edo gehiago dituztenen tartean azken joera hori bestelakoa da eta bertan jaiotako gizonezkoek bikoiztu egiten dute kanpoan jaiotakoen kopurua.

GIPUZKOAKO HERRIAK

	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Zerain	135	74	61
Segura	14	6	8
Beasain	10	5	5
Ordizia	8	4	4
Idiazabal	6	2	4
Ataun	4	2	2
Olaberria	4	3	1
Lazkao	3	1	2
Altzaga	3	2	1
Mutilo	2	1	1
Zegama	2	1	1
Zaldibia	1	1	0
Itsasondo	1	1	0
Gabiri	1	1	0
Goierri 13	59	30	29

Donostia	12	6	6
Tolosa	5	1	4
Legazpi	4	2	2
Zumarraga	3	1	2
Usurbil	3	2	1
Leaburu	1	1	0
Baliarrain	1	0	1
Asteasu	1	0	1
Ezkio	1	0	1
Lezo	1	1	0
Errenteria	1	0	1
Elgeta	1	1	0
Bergara	1	1	0
Antzuola	1	1	0
Aretxabaleta	1	1	0
Azpeiti	1	1	0
Elgoibar	1	0	1
Lizartza	1	1	0
Gipuzkoako beste herriak	40	20	20

Gipuzkoako 31 herri desberdinetatik etorritako zeraindarrak gara, Goierrik dituen beste 17 herrietatik 13 herri desberdinetan sortutako 59 zeraindar ditugu. Zeraindar horiek taldeari ematen dioten aniztasuna eta jakintza sekulakoa da, eskualde ikuspegia lantzeko eta eskualdeko harremanetarako altxorak dira. 13 herri horietatik Segura da zeraindar gehien eman duen herria.

Goierritik kanpo dauden beste Gipuzkoako 18 herrik egin dute bere ekarpena, bertan jaiotako 40 bat lagunek egin baitute zeraindar izateko hautua. Gipuzkoak dituen eskualde ia guztietatik etorritakoak dira: Oarsoaldea, Donostialdea, Buruntzaldea, Tolosaldea, Urola erdia, Urola behea, Debagoiena eta Debabarrena. Bi eskualde hauetako jatorrikerik ez dugu, oraingoz: Bidasoaldea eta Urola Kosta.

Ia eskualde guztietatik etorritako zeraindar horietatik asko ikasi dugu eta ikasten jarrai dezakegu Gipuzkoaz, eta hauek ere harremanak sartzeko eta jakintza eta ohiturak partekatzeko altxorak dira guztiontzat.

EHko beste lurraldeak

	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa
BIZKAIA	3	2	1
NAFARROA	3	2	1
IPARRALDEA	1	1	0
Euskal Herriko beste lurraldetatik	7	5	2

Euskal Herriak 7 lurralde ditu, horietako batzuetatik etorritako zeraindarrak 7 dira. Bizkaitik, Nafarroatik eta Lapurditik etorritako zeraindarrak dira. Beraien euskalkiak eta ohiturak gurekin konpartitzen dituzte, geureak aberastuz, askotan hortaz konturatzeko ez bagara ere.

KANPOKO LURRALDEAK			
	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Espainia	3	2	1
Portugal	6	3	3
Italia	1	0	1
Europa 3	10	5	5
El Salvador	1	0	1
Mexiko	1	1	0
Honduras	1	1	0
Argentina	1	1	0
Estatu Batua	2	1	1
Amerika 5	6	4	2
Pakistan	2	0	2
Asia 1	2	0	2

Euskal Herritik kanpo jaiotako zeraindarrak ere baditugu, 3 kontinente desberdinetako 9 herrialde desberdinetako 18 herritar. Espainia, Portugal eta Italiako jatorria dute Europatik etorritakoak. Ameriketatik etorritakoak berriz Argentinan, El Salvado-

rran, Hondurasen, Mexikon eta Estatu Batuetan jaiotakoak dira. Asiatik etorritakoak Pakistanen sortutakoak dira. Ondorioz Zerainen euskara eta gaztelaniaz gain, ingeleraz, portugesez, italieraz, pakistanieraz hitz egiten da, batez ere familiarrean bada ere. Jatorri aniztasunari erreparatuta aberastasun handia du Zerainek, elkarbizitzarako kontuan hartu beharreko alderdia da ezinbestean. Hizkuntza guztiak kontuan hartu behar ditugu eta balaratu. Kohesio hizkuntza euskara izatea lortu behar dugu, gure hizkuntza delako, beste jatorria duten zeraindarrek euskara maitatu dezaten ahalegindu behar dugu.

Non bizi gara zeraindarrak? 262 zeraindarrak 95 etxebizitzetan bizi gara.

Kaskoan, Gurea eta Erregesoro barne hartuta, ia ehun lagun bizi gara, zehazki 95 zeraindar 41 etxeetan banatuta. Kaskoan 25 etxebizitza dago hutsik momentu honetan.

Gehiago gara kaskotik kanpo bizi garen zeraindarrak. 167 zeraindar bizi gara kaskotik kanpo kokatuta dauden zortzi auzoetako 55 etxeetan. Momentu honetan 40 etxe daude hutsik auzoetan. Auzoetatik Aizpea auzoa da baserri kopuru handiena duena, 21 baserri, eta horietatik 9 baserrietan bakarrik bizi da jendea.

Herrian momentu honetan 65 etxe huts daude.

Hasierako galderari erantzuteko, Nolakoak gara zeraindarrak herria sortu eta 400 urte beranduago, alegia, XXI. mendearen hasieran? faktore asko hartu daitezke kontuan, konturatuko zinen moduan, sexua, adina, jatorria eta bizitzeko tokia hartu ditugu kontuan artikulua honetan. Hauek ezagututa gu geu pixka bat gehiago ezagutzeko balioko dutelakoan idatzi dugu, ea ba horrela den.

BIZTANLEAK eta ETXEA						
	GUZTIRA	EMAKUMEZKOA	GIZONEZKOA	ETXE-BASERRI KOPURUA	BETETA	HUTSIK
KASKOA- GUREA- ERREGESORO	95	51	44	66	41	25
URKULUTA	4	2	2	1	1	0
BARBARI	16	8	8	10	6	4
AIZPEA	13	6	7	21	9	12
LAIOTZ LASUSTEGI	21	12	9	13	8	5
HIRUKATE	40	23	17	12	11	1
KOZMENDI	21	11	10	14	5	9
ERREKALDE	16	10	6	10	5	5
OTATZA AUZOA	36	18	18	14	10	4
Guztira	262	141	121	161	96	65

Oharra: artikulua hau idazteko erabilitako datuak udalak jarri dizkigu erabilgarri. Datuak etengabe aldatzen doaz eta agian honez gero datuen bat zaharkituta egon daiteke.

BioNeuroEmozioari buruz solasean...

BioNeuroEmozio hitza aipatu eta seguruenik joko kanpo geratuko zarete gehienak. Eta egia esan, ez da ez okindegian ogia erosterakoan edo lagunekin tabernetan poteatzerakoan sarritan entzun ohi den zerbait. Are gehiago esango dizuet, giza ongizatearen eta osasunaren eremu ezberdinetan lanean diharduten hainbat eta hainbat profesionali ere, oraindik ezezaguna zaien termino baten inguruan mintzo natzaizue. Mundu horretan muturra sartu nahian gabiltzan beste zenbaiti, ordea, gertukoagoa zaigu hitz honen adiera. Nik, nire zorionerako, Psikologiako karrera amaitu ondotik izan nuen lehen aldiz beronen berri eta ustekabeko benetan atsegina izan zen niretzat BioNeuroEmozioaren aurkikuntza. Unibertsitateko lanak bukatuta, galdu antzean nengibilen. Bizidunen portaerak aztertzen dituen zientzia (?) honen barrutia hain da zabala, zer bide hartu edo nondik jo ez nekiela aurkitzen nintzen. Pasa den urteko udaberri egun batez baina, nire amaren ezin eskertuzko laguntzarekin, Enric Corbera delako gizaseme baten izena iritsi zen nire belarrietara. Interneten han eta hemen arakatzen ibili ostean, gizon honek segituan piztu zuen nigan sekulako interesa. Sarean ehundaka bideo eta mundu guztian milaka jarraitzaile dituen 60 urte inguruko kataluniarraren giza diskurtso aberatsak, guztiz txunditu ninduen. Oso argi adierazten zen bere hitzaldietan, engainu edo disimulurik gabe eta gauzei euren izenez deitzen zien. Zenbait momentutan erabilitako tonu oldarkorak, gainera, esandakoari indarra ematen zion eta mezua oraindik eta sarkorragoa egiten zuen. Baina neurrian, pasa gabe. Bizi garen lozorro mentaletik esnarazi eta zer pentsatua emateko lain baka-rrik. Bere-berea duen umore fresko horren gehigarriarekin, oso gustagarria egiten zitzaidan berau entzuten egotea. Pertsuasio gaitasun handikoa izaki, orduak eta orduak eman nituen horretan, entzulea bereganatzeko limurtze edo gorteiu keinuetatik haratago, funts mardulekoa iruditu baizitzaidan aho betez defendatzen zuena. Mamitsua oso. Jaun eta andreak, BioNeuroEmozioaz ari zen.



Enric Corbera

Bartzelonako probintzian kokatzen den Rubi herrian jaio zen Enric duela mende erdi baino gehiago. Industria Ingeniaritza Teknikoan lizentziatua, 33 urterarte Kalitate Zuzendari bezala lan egin zuen. Aitzitik, egiten zuenak asebate ez eta barneko senari jarraiki, ingeniari lanak utzi eta bizitza goitik behera aldatzea deliberatu zuen. Naturopatian nahiz Sofrologian titulatu eta lehenbizikoz, gaixotasunen eta emozioen arteko lotura aztertzen zuten autoreengan interesatu zen. Minbizia diagnostikatu zioten eta egoera delikatu hartako gogoeta sakonek, gaixotasuna gorputzean beharrean, gogamenean dagoenaren ustea indartu zioten. 44 urterekin, alajainetan, Psikologiako ikasketei ekin zien eta 49 zituelarik, Psikologo titulua eskuratu zuen Alumno Emeritus izendapenarekin. Gerora, BioNeuroEmozioan diplomatu da eta bere ikasketak Hipnosi Ericksoniarra eta Programazio Neurolinguistikoa masterrekin osatu ditu.

Gauzak honela, 20 urte baino gehiago daramatza Enric Corberak emozioek gure osasunean nola eragiten duten ikertzen. Gaur egun, bere izen bera daraman institutua zuzentzen du eta ezin hobekiago prestaturiko profesional talde handi bat (psikologoak, medikuak, fisioterapeutak, biologoak, etab.) du bere aginduetara. BioNeuroEmozio marka eta honen edukiak albait gehien hedatzeko ahaleginetan, kurtso, hitzaldi eta mintegiak antolatzen dituzte mundu osoan zehar. Latinoamerikan, batez ere, hizkuntza erraztasuna tarteko, onarpen oso zabala ari dira izaten. BioNeuroEmozioaren magiak liluratuta, institutu honetan dihardut nik ere gradu ondoko ikasketak burutzen. Etapa polit honek, askotariko jende interesgarria ezagutzeko parada eskaini dit eta baita leku berriak ere, izan ere, Valentzian eta Bartzelonan egin ditut formakuntzaren lehenengo eta bigarren moduluak, hurrenez hurren.


Baina zer da BioNeuroEmozioa?

BioNeuroEmozioa (BNE) ikerketa metodo bat da eta honako helburua du: jokamolde antisozial, indarkeria, substantziekiko menpekotasun edota gaixotasun deituriko sintoma fisiko modura adierazitako edozein portaera disonanteren atzean dagoen ezkutuko emozioa identifikatzea.

BNE ez da terapia bat, ezta sendagai mota edo tratamendu konkretu bat ere. Kontsulta-modu humanista bat da, zeinarekin gizabanakoari bere bizitza baldintzatzen duten faktore inkontzienteak aurkitzen laguntzen zaion. Horretarako, hainbat teoriatan oinarritzeaz gain, Programazio Neurolinguistikoa, Hipnosi Ericksoniarra eta zuhaitz genealogikoaren azterketaz baliatzen da. BNE gaixotasunen desagokitzapen eta sintomatologiatik abiatzen da, naturak ingurunera egokitzeko dituen programa

biologikoak aztertzen ditu eta norbanakoari inkontzientean erreprimituta daukan emozioa topatzen laguntzen dio, zeina sintomari (gaixotasuna edo jokabide disonantzia) elkarloturik dagoen. Ezkutuko emozio honek historia pertsonalean, familiarrean eta belaunaldi artekoan daukan zentzua aurkitzen ahalegintzen da, konsziente egiteko. Ondoren, zenbait tekniken bidez, oraindik azaleratu gabeko emozio hau askatu eta eraldatzen da, gatazka gainditu eta sendaketa posible egiteko.

BNEk gaixorik dagoen subjektua honako hausnarketa hau egi-tera bultzatu nahi du: Zerk ekarri nau egoera honetara? Zer



helburu du nire gaixotasunak? Edo beste modu batera esanda: Zertarako adierazten da nire biologia honela? Zer esan nahi dit? Galdera guzti hauekin, gaixoari biktima bat denaren ideia kendu nahi zaio burutik eta gertatzen zaionaren erabateko



EcoXpert
Certified by 



AIZKORPE
Elektrikariak - Koop. E.
www.aizkorpe.com ☎ 943 800 000

Era guztietako argi lanak etxe eta lantegietan – Led argiztapena
Telekomunikazioak – Iberdrola Puntua – Aholkularitza Energetikoa

Tfnoa: 943 800000
Faxa: 943 801826
www.aizkorpe.com

Goardiako Industriegunea 14 -1. Aldea
20213 IDIAZABAL – Gipuzkoa
aizkorpe@aizkorpe.com

erantzule eta arduradun egin, hartara, guk heldutasun emozionala deitzen dugunera eramanez.

Ikusitakoak ikusita, BNE, gauza guztien gainetik paradigma aldaketa handi bat da. Eritasuna ulertzeko modu berritzaile batekin egiten dugu topo. Gaixotasunarekiko orain arteko ikusmoldea guztiz irauli eta berau beste dimentsio batetik begiztatzea dakar, kontzientzia maila handiago batetik, alegia. Eskenatoki berri honetan, zorte txarrak, zoriak, jaungoikoaren zigorrak edo ama naturak gudan huts egin duela bezalako kontuek jadanik ez dute lekurik. Gu gara gure ondoreen sortzaileak. Edozein sintoma edo patologiarekin atzean, inkontzientzia helarazi nahi digun informazio bat aurkitzen dela argi izan behar dugu. Gaixotasun oro, hortaz, konpondu gabeko gatazka emozional baten irtenbide biologiko bat besterik ez da eta hautemangarria den leku bakarrean islatzen da: gorputzean. Sintomaren kode sekretua aurkitzeak, ulertzeak eta kontziente egiteak gaitza geldiarazten du, bere erabateko osatzea ahalbidetuz. Eritasuna, naturak gizakia sendatzeko egiten duen ahalegina da eta ez da gizakia gaixotasuna sendatu behar duena.

BNE, besteak beste, Georg Groddeck, Maria Torok, Nicolas Abraham, Josephine Hilgard, Monique Bydlowski, Milton Erickson, Anne Ancelin Schutzenberger, Ryke Geerd Hamer, Claude Sabah, Marc Frechet edo Carl Gustav Jung bezalako izen garrantzitsuen ekarpen eta lan-esperientzietan sostengatzen da, gaixotasunak bere horretan ez direla existitzen eta zentzuz beteriko programa biologikoak direla frogatuz, inpaktu emozional bat egon den egoeretara egokitze gortzak martxan jarritako biziraupenerako programa biologikoak, hain zuzen ere.


BNE diziplina hagitz berria da eta oihartzun txikia izan du bere hastapenetatik gaurdaino. Enric Corberak 2008an ekin zion bere ibilbideari. Hasieratan, gainera, Deskodifikazio Biologiko edo Bio-deskodifikazio izenez eman zen ezagutzera metodoa. Alabaina, Europako beste eskola batzuekin izandako zenbait desadostasun eta diferentzia medio, BNE marka erregistratu bezala jaioko da urte batzuk geroago, aipatu eskola horiengandik bereiziz. Corbera

jaunak, sintoma fisikora hertsiki mugatu orde, bizidunon dimentsio soziokulturala aintzatesten jakin du eta giza problematikari perspektiba zabalago nahiz osoago batetik heldu nahi izan dio. Egunetik egunera bilakaera oparoa izaten ari da eta etengabeko hobekuntza prozesu batean murgilduta darrai.

Azkenik esan, BNEk bezeroa jasotzen ari den edozein tratamendu (medikuntza tradizionala, alternatiboa edo osagarria) optimizatzea ahalbidetzen duela. Horrexegatik, ez dator ezer baztertera eta are gutxiago, ordezkatzera. Alderantziz, metodologia guztiz integratzailea da eta denen zerbitzura dago, izan ere, BNEk gizakiaren ikuspegi holistikoa defendatzen du. Zientzia ezberdinek orain arte lortutako aurrerapenak barnebiltzen ditu, modu honetan, emozioek, eta zehatzagoak izateko emozio inkontzienteei, izaki bizidunen funtzionamendu biologikoan duten eraginaren ezagutza erraztuz.

Gure benetako boterearen kontzientzia hartzen

Gaur gaurkoz gauza jakina da giza adimena bi zatitan banatuta dagoela. Bi zati hauek adimen kontzientea eta adimen inkontzientea dira eta biek ala biek, funtzio oso ezberdinak dituzte. Adimen kontzientea kortex edo garun-azalean kokatzen da eta gauza berrienganako arretaz, iraganean oinarriturik etorkizunera begirako proiektzioak egiteaz edo zentzumenek sorrarazitako sententzio fisikoen iragazpenaz arduratzen da. Adimen kontzientea adimen zentsuratzailea da, kalkulatzaileria, denboraren jabe da eta munduarekin konektatzen gaitu, betiere, arrazionaltasunaren eta ikasitako sinesmenen ikuspuntutik. Adimen inkontzientea, os-tera, ia osoki gobernatzen gaituen adimenaren beste atala da. Benetan garena. Gure jokabidearen %97a, sinestezina egingo bazai-zue ere, adimen inkontzientetik eratortzen da. Kalkulu handirik egin beharrik ez dago kontzientziak gure garunean %3ko lekutxo bat besterik hartzen ez duela ikusteko. Adimen kontzientea gertakari baten jakitun izan aurretik, adimen inkontzientek da-goeneko ebaluazio bat gauzatu eta erabaki bat hartu izaten



Mikel eta Arantxa

TAXI adaptatuak - 9 plaza

Tel: 660 132 512 · **Mikel**

Tel: 645 006 737 · **Arantxa**



du, ondoren konszienteki hartuko dugun erabaki berbera. Sistema inkontzienteak emozioekin eta sentimenduekin lotura zuzena du eta oroitzapenak edo portaera automatikoak ere bertan aurkitzen dira. Bizi dugun guztia egiazko bezala interpretatzen du, hemen ez baitago epaituko duen hesi edo langa zentsuratzaile-rik. Bestea ez bezala, denboraz kanpokoa da eta berak du bizi dugun une zehatzaren erantzukizuna, izan ere, biziraupenerako funtzio guztiak betirako gogoan hartzeaz eta zuzentzeaz arduratzen da. Orain dela milioika urte, inkontziente emozional edo intuiziozko hau izan zen sortzen lehena eta biologikoki erreakzionatzen du, konszientziarik gabe bizirautea ahalbidetu diguten programa ebolutiboen ondorioz. Adimen konszienteak, askoz beranduago sortutakoa da.

Guzti hau ikusita, hobeto ulertzen da gaixotasunek jatorri inkontzientea dutela. Ustekabeen harrapatzen gaituen eta bakartasunean bizitzen den shock psikiko traumatiko orok, garunaren gune konkretu batean eremu elektrofisiologikoaren haustura bat eragiten du eta momentu horretan, garunaren gune horrek gobernatzen duen gorputzeko organoa lesionatzen da. Gaixotasun bezala ulertutako hori, gizabanakoak gatazka konpondu bitartean gertatzen den prozesu bifasiko bat da. Lehenengo fa-

sea, subjektuaren buruan gatazka aktibo dagoen aldia da eta hemen, gaixotasuna garatzen da. Bigarren fasea, norbanakoak gatazka konpontzea lortzen duenean hasten da eta une horretan, konponbidea hiru mailatan ematen da, fase aktiboan gaixotasuna jazo den hiru maila berdinetan: 1) Psike mailan pertsona horrek gatazka gainditu du; 2) Maila zerebralean lehen iturbat zena orain edema batean bilakatu da; eta 3) Maila organikoan eritasunaren sendakuntza abian jarri du organismoak. Gure gatazken sorburu inkontzientea topatu eta horren konszientzia hartzean, gaixotasunak bere zentzu biologikoa galtzen du eta garunak egindako mina bihurtzeko agindua ematen du, giza biologia, sintomatologia zehatz bat sortzeko gai den bezalaxe, guzti hori desaktibatu eta gorputzaren autokonponketa-rako mekanismo naturalak martxan jartzeko prestatua baitago. Laburbilduz, inkontzienteki gaixotzen gara, konszientzia hartzen dugu eta inkontzienteki sendatzen gara.

Azalpen terapeutiko hau, orain arte ezagutzen genuenetik oso urrun aurkitzen da baina gure benetako ahala erakusle garbia besterik ez da.

BEÑAT ZUBELDIA ALUSTIZA



TXIRBIL KOOP. E.



ZERAINGO HERRI ZERREDA BAKARRAREN ALDE





Zeraindarrak Korean

3hilabetez Hego Korean egon gara, Seoul hiriburuan zehazki. Bertan Euskara eta euskaldunekin zenbait ezaugarri amankomunekin aurkitu gara eta beste hainbat ezberdintasunekin baita ere, gizarteari dagokionez. Idatzi honen bidez, Koreako zatatitxo bat oparitu nahiko genizueke.

HIZKUNTZA

Korear hizkuntzak, euskararekin antzekotasuna ugari ditu, esaldien estruktura batipat:

Subjektua + Objektua + Aditza

Bestetik, euskaraz berroreka eta zuka erabiltzen diren bezala, korean ere antzera erabiltzen dute. Aditzari sufijoa eransten diote adina eta posizio mailaren arabera. Beraientzat oso garrantzitsua da jakitea bi ezaugarri horiek, hizkuntza maila ezberdina erabiltzeko. Adibidez baten bat ezagutzerako orduan lehendabizi adina galdetu ohi dute, elkarren artean ere.

ARKITEKTURA

Seoulen (서울) eraikuntza tradizionalak (tenpluak) eta gaur egungo eraikuntza modernistak elkarrekin batera ageri dira. Templu gehienek, barnean jardun ezkutuak daukate laku batez inguratuta. Tenpluen ardurapen eta zaintza, jubilatuta dauden pertsonengan ezartzen da.



GARRAIOBIDEAK

Garraio bideak oso merkeak dira Korea osoan, hala ere denen erregea dugu metroa. Korean metroa ez da bakarrik toki bate-tik bestera eramateko erabiltzen, baizik eta zenbait jende-k apain leku bezala erabiltzen du, edo lotarako ohe bezala. Metroan te-lebista txiki bat dago non geldiune bakoitza adierazten dizun hizkuntza eta idatzi ezberdinetan: Txineraz, Japoneraz, Korearraz eta Ingeleseaz.

Metroan ibiltzeko, txartel ezberdinak daude T-money edo ibil-bide bakarrekoa. T-money da gehiena erabiltzen dena bertan. Txartela metro estazio-tik kanpo dagoen denda batean erosi beharra daukazu eta ondoren estazio bertan dauden makine-tan kargatu nahi duzun horrenbeste diru. Baina adibidez, be-har izan duzuna baino gehiago sartu baduzu eta geratzen den diru kopurua itzultzea nahi baduzu, estazio berean makina ez-berdinak dituzu dirua itzultzeko.



GIZARTEA

Koreako gizarteak presio bortitza egiten du estetika eta itxura fisikorekin inguruan. Bertan operazio estetikoak nagusi dira, eta kale bat baino gehiago aurkituko dituzu zentro estetiko ingururatu. Jendeak gehien eskatzen duen kirurjia mota begiak handitzea eta masailhezurra fintzea da. Okzidental itxura edukitzea da gehiengoaren nahia.

Beste presioetako bat lanaren inguruan da. Langileek ezin dute utzi beraien lanpostua nagusiak alde egin baino lehenago, beraien amaituta eduki arren. Lehendabizi nagusia joaten da eta ondoren besteak. Batzuetan langileek nagusiarekin joan beharra daukate alkohola edatera nahi edo nahi ez izan arren. Negozia etak egiterakoan ere.

NON EROSI

Korean merkatu gune ezberdinekin aurkituko zara prezio atseginekin.

Zure burua apaintzeko behar duzun guztia Myeong-dong (명동) en daukazu. 15 kale baino gehiago denda eta postu ezberdinez beteta. Prezio oso merkean.

Merkatu tradizionalagoa nahiago baduzu berriz, Namdaemun (남대문) edo Insadong (인사동) daukazu. Bertan, koreako janari tradizionala probatu dezakezu eta bertako produktu natural eta tradizionalak erosi.

JANARIA

Korean, taberna gehienak jaki bakar batean espezializatuta daude eta edozein tokietan gehiagarriak dohain ematen zaizkizu. Adibidez, bakailaua eskatzen duzu eta entsalda, zopa, berdura, arroza eta Kimtxi dohain ematen zaizkizu prezio baxean eta nahi duzun hainbestetan errepikatu dezakezu. Kontuz pikantearekin, asko erabili ohi dute, hori baita osagai nagusia bertan. Kanpoan jatea merkea da eta bapo-bapo sentituko zara.



NAHIKARI eta MAITENA ALUSTIZA ELORZA



Bi urte eta gero, 2015ko uztailaren 4ean, Altsasun, berriro elkartu dira 174 herrietako alkateak ondorengoa berresteko. Horien artean gaur egungo Zeraingo udaleko ordezkariak aurreko udaleko ordezkariak sinatu zutena berretsiz.

EZKIO ITSASO ETA DEIKAZTELU ARTEKO LAT PROIEKTUAK KALTETUTAKO ALKATEEN BATZARRAREN ADIERAZPENA

Altsasun, 2013ko maiatzaren 11an, Itsaso-Deikaztelu arteko Goi tentsioko lineak kaltetzen dituen 174 herrietako alkateek, 220 Udal eta Kontzejutan onartutako mozioaren sentipena jasoaz, non proiektuari erabateko oposizioa erakutsi zitzaion, akordio bat sinatu genuen eta idatziaren bitartez, proiektuaren tramitazioa geldiaraztea eskatzen zitzaion Industria eta Energia Ministerioari, sektore elektrikoko planifikazio berria onartu bitartean.

Ministerioak ez zion inolako kasurik egin eskaerari eta tramitazioarekin jarraitu zuen, Nafarroako eta Gipuzkoako 32 herrirengan eragina duen proiektua informazio publikoan jarriaz. Horrek sekula ikusi gabeko erantzuna jaso zuen, bi urte beranduago erantzunik jaso ez duten 14.000 alegazio bilduz.

.Momentu honetan tramitazioan dagoen, 2015-2020 Garraio Saarearen Planifikazioa jasotzen duen dokumentuak, Itsaso-Orkoien bitartean dauden 220 kV gaur egungo lineak berrindartzea jasotzen du, Nafarroa eta Gipuzkoarako aurreikusitako beharrak estaltzeko eta Itsaso eta Deikaztelu arteko 400kVko linea, "Frantziara esportatzeko goi mailako programa" jarriaz eskenatoki bezala. Honek, sustatzaileen esanetan Lizarra aldea hornitzen laguntzeko balioko zuen Deikazteluko subestazioa, planifikaziotik desagertzea ekarriko luke.

Itsaso-Deikaztelu proiektua, 2011ko abuztuan aurkeztu zen eta lau urte beranduago argi geratzen da, ez dela igarotzen den herriek dauzkaten beharrak hornitzeko, baizik eta estatu espainiar eta frantziarren arteko lotura handitzeko eta hau informazio publikora bidali zen dokumentua ere ez zegoen jasota. 127 km-ko autopista elektrikoa, erabat bateraezina da pasatzen den eskual-



Anaiak Garajea

Mekanika eta ibilgailu-konponketa

Goardiko Industri poligonoa

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 483



deetako garapen aurreikuspenekin eta horrez gain ingurumenean, osasunean eta ehun produktiboan eragin bortitza suposatuko du.

Gure herrietako etorkizunarekin dugun konpromisotik eta bizi-modu duina izateko eskubidetik, adierazpen hau sinatu genuen, Itsaso Deikaztelu arteko proiektuak kaltetzen dituen herrietako alkateok, proiektuari gure oposizioa berresten diogu eta

Nafarroako Foru Komunitateari eta Erkidegoko Gobernuari eskatzen diegu, Industria, Energia eta Turismoako Ministeriora zuzentzeko, 2015-2020 Sektore Elektrikoko, Garraio Sarearen Planifikaziotik, Itsaso -Deikaztelu arteko goi tentsioko linea ken dezaten.

Altsasun, 2015eko uztailaren 4an



ALDABE ZERBITZU TURISTIKOAK

Zerain Paisaia Kulturala

- Informazio bulegoa
- Aterpetxea
- Ikastetxe eta familientzako egonaldiak eta udalekuak
- Tailerrak eta erakusketak
- Bisita gidatuak
 - Meategiak
 - Museoa
 - Zerrategia
 - etab.

www.aldabe.com

Tel: 943 801 505

turismobulegoa@zerain.com

MANDIO TABERNA

Tel: 943 801 705

2014-2015 Urtean zehar Basarte guraso elkarteak gauzatutako ekintzak



Urteroko legez hainbat koordinazio-guneetan parte hartzen jarraitu du: herriko kultur etxean, Gipuzkoako Eskola Txikien koordinakundean, Goierriko Eskola Txikien Koordinazio gunean, eskola kontseiluan eta behatokian... Baita zenbait ekintza burutu ere, rokodromoa, bazkaria, kultur asteko marrazki rallya, talo ta gaztain jana, Gabon eskea, San Juanetako dantzak, ... besteak beste

Hala ere aipatu gabe ezin dugu utzi, Eskolak Mamaterrak antolatutako 2015eko Eskolako Baratzak Ekologikoaren Sariketan parte hartu duela eta bertan Guraso Elkarteak ere lagundu duela lan hori lehiaketarako aurkeztzen. Ea zortea dugun!!

Azkenik esan aurtengoan azken urtea izan dutela Itsaso Lazkanoiturburu eta Ekain Ansoleagak Zeraingo herri eskolan eta zorterik onena opa diegu beraien eskola berrian! Datorren kurtsoari begira, berriz, ongi etorria emango diegu Aetz Elorza, Eneritz Aizpeolea eta Bidatz eta Libe Telleriaria.

Bada zerbait alaaaa??? Datorren urtean gehiago.



Ondarre

Harategia · Frutak · Barazkiak

Zurbano kalea

20214 Segura

Tel: 943 800 326

Xabier Lazkanoiturburu eta Nekane Alustiza Oihane, Josu eta eta Itxasoren gurasoak 14 urte guraso elkartean



2001ko irailean sartu ginen , Basarte guraso Elkartean. Beasainen bizi arren Zeraina bizitzea etortzekoak ginen, baserria berri bitartean, Oihane Zeraingo eskolan hasi genuen. Ez zen erraza izan, Beasaingo Lizeo Alkartasunan zebilen, handik atera eta egunero ekartzen genuen Beasaindik Zeraina, esfortzu potoloa eginez. Orduan hasi ginen guraso elkartean, hori bai, ilusio eta gogo handiz. Ordutik hona 14 urte pasa ditugu bertan. Hasierako urteak ilusio handikoak izan ziren. Beti proiektu eta ekintza berriak buruan, batzuk aurrera eramatea lortu genituenak eta besteak bidean geratu zirenak.

2004an haurreskola martxan jartzen hasi ginen, makina bat buruhauste pasa genuen. Jangela ere hortxe daukagu, Mai-xune ere berrituta jarri genuen, makina bat ordu goxo eta gazi pasa ere. Zaintza zerbitzua, uztail osoko zerbitzuak ere hor daude, denbora librearen barne, gaztetxoak ilusio handiz egiten duten lana. Eta abar.....

2008ko Eskola Txikien festa erraldoia. Honek ere lan ugari eman arren, izugarritzko ilusioarekin antolatu genuen, eskerrak eman herritar guztiei, beraiegatik izan ez balitz ezin izango genuen aurrera egin.

Hau dena aurrera eramateko, inplikazioa, lana, ilusio eta gogo handia behar da, eta beharrezkoena berriz, eskola txikietan sinestea, herri bat eskolarik gabe ez litzateke berdina izango. Or-

duan eta zerbitzu gehiago eskeini, arrisku gutxiago herriko haurrak beste eskola batetara eramatea. Momentu onak asko pasa ditugu, baina bestelakoak ere bai, kanpotik dena polita ikusten dugu, baina arazo batzuk ere izan ditugu 14 urte hauetan. Guretzat guraso elkarteak ez da izan lana egitea bakarrik. Bertan ederki pasatu ere bai. Makina bat irteera eta txango antolatzen ditugu. Zertarako? Guraso , irakasle eta haurren arteko harremana sendotu eta ondo pasatzeko.. Askotan egiten diogu galdera hau gure buruari. Eta orain zer? Behin Zeraingo eskolatik irtetzean mantenduko ote dugu lehen izandako harremana? Beste fase bat bizitzea tokatzen zaigu orain, eta espero dugu aurrerantzean herrian lehengo martxa bera eramatea bai guk, eta baita zuek ere. Eskolak herritar bihurtzen bait gaitu.

Elkartean jarraitzen duten gurasoei esan, tresna garrantzitsu bat dela Basarte Guraso Elkarteak eta horrela jarraitzeko. Ez galdu inoiz ilusiorik, eutsi zuen arteko harreman onari. Gora beherak izango dituzue, baina beti aurrera begiratu behar duzue. Mantendu orain arte egindakoak , jarraitu hasitakoekin eta noski proiektu berriei hasi. Gaur egun guraso asko zaudete lana egiteko, beraz ez dago aitzakiarik!!!!

AURRERA BASARTE GURASO ELKARTEA!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

XABIER eta NEKANE

Amazonasen galdurik

1. EGUNA:

Oier eta zu plan bat pentsatzen ari zarete: Munduari globoan bira ematea, nahiz eta oso zaila izan, saiatu egin behar.

2. EGUNA:

Goizean goiz jaiki zarete, dena prestatu eta abiatu ahal izateko. Bi motxila handi hartu eta dena janariz eta arropaz bete duzue. Globoa prestatzea bakarrik falta zaizue! baina espezialista bat behar duzue, horretarako dei bat egin beharko. Ez duzue espezialistarik aurkitzen eta orduan globoa zuek jarri behar! Gaueko bederatzietan abiatzen zarete.

3. EGUNA:

Goizean lo zaudetela, golpe handi batek esnatzen zaituztete. Amazonas oihan handiaren erdian zaudete!. Sua egitea pentsatzen duzue laguntza eskatzeko eta Oier egur bila joaten da. Zuk bi harri hartu eta biak igurzten ekin eta ekin ari zara, baina erabat nekatzean, Oier etortzen da eta berari uzten diozu jarraitzeko. Bera, ez direla su harriak konturatzen da, hortik zehar ibili denean su harriak ikusi eta hartu egin ditu bada ez bada ere, zuk bitartean egurrak lurrean jarri eta Oierrek harriekin "txispa" bat botatzen die egurrei. Azkenean, sua!. Hosto handi bat hartu eta abaniko moduan mugitzen duzu, kea goraka bidaliz. Hor geratzen zarete egun guztian, aspermenaren barruan sarturik, Gaua da, eta lo hartzen duzue.

4. EGUNA:

Goizean, esnatzen zaretenean, pertsona beltz batzuek inguratuturik zaudetela konturatzen zarete, Oierri begiratu eta galdetzen diozu:

-Nor dira hauek?

-Ez dut ideia zipitzik ere, hemengo triburen batekoak izango direla uste dut ... - esan du Oierrek.

Horko nagusia hitz egiten hasten zaie bere laguntzaileei baina ez diozue ezeren zentzurik hartzen. Bat-batean, hartu eta arras-taka norabaitera eramaten zaituztete, egurrezko etxe polit batzuk ikusten dituzue bertan eta horietako batean sartzen zaituztete, beraien buruzagiaren etxean hain zuzen ere. Hitz egiten hasten dira berriz ere eta zuek nazkatuta esaten diezue:

-Zer nahi duzue gudan? Zerbait egin dizuegu ala? Askatu gaitzazue oraintxe bertan, askatzeko!- esaten duzu zuk oihuka mugimendu handiak eginez.

Orduantxe nagusiak laguntzaileei keinu bat eginez askatzeko agindu die, zuek kanpora korrika joan eta zuentzako festa bat antolatu dute!. Zuek festara bildu zarete eta zintzoak direla ikusi duzue, baina orduantxe bi ehiztari etorri dira eta esan dizuetenez, zuei laguntzera etorri dira, etxera bueltatzeko aukera duzue! baina pena ematen dizute tribuko lagun horiek.

Tribukoekin geratu zarete festaz gozatzen eta beraiekin biziko zaretela esan diezue, beraiek pozarren hartu dute notizia eta zuen etxea zein den erakutsi dizue, etxe berria da, orain dela gutxi egin eta oso polita. Beraiek eginiko jantzi polit batzuk ematen dizkizute. gaua da eta lo geratzen zarete. Gau osoan lo sakonean egon partez, bizi guztia egongo zarete lo sakonaren barruan sarturik. Ez dago zuen informazio gehiago.

MAIALEN ALUSTIZA ASEGINOLAZA



Hobetzeko grina
Konpromisoa
Ahalegina
Ilusioa

AMPO
Commitment made of steel

... gure eragile

Sasta txakurra

Bazen behin herri txiki bat Zerain izenekoa. Bertan ez zen jende asko bizi baina herri oso polita zen.

Zerainen bazen mutiko berezi xamar bat, eskolatik atera eta lagunekin plazan gelditu ordez, bere etxera joan, bokadiloa hartu eta baserri batera joaten zena, Sasta txakurrarekin jolastera.

Egunero berdin egiten zuen, baina egun batean lagun batek galdetu zion:

– Nora joaten zara arratsaldero?

Eta mutikoak erantzun zion:

– Sasta txakurrarengana joaten naiz arratsaldero, nahi al duzu nirekin etorri?

Eta lagunak erantzun zion:

– Bai noski!!!!

Horrela beti sastarengana joaten ziren.

Baina egun batean, lagun guztiei esaten hasi zen eta berandutu egin zitzaizkien, hala ere Sastaren baserrira joan ziren lagun guztiak. Baserrira iristean, Sasta ez zegoen eta ezin zuten sinistu, ondorioz baserritarrari galdetu zioten:

– Non dago Sasta txakurra?

– Nik ez dakit non dagoen baina orain dela gutxi alde egin du.

Orduan mutikoak erantzun zion:

– Lasai guk aurkituko dugu.

2 ordu ibili ziren Sasta txakurraren bila eta ez zuten aurkitu.

Orduan lagun guztiak etxera joan ziren eta hurrengo egunean baserritarrengana joango zirela erabaki zuten.

Mutikoa etxera iristen ari zela, Sasta txakurra bere etxeko atarian zegoela konturatu zen eta korrika Sastarengana joan zen eta baserrira eraman zuen.

Orain, Sasta beti bere lagunei itxaroten gelditzen da txintxo-txintxo bere etxetxoan.



AIZPEA ELORTZA ELORTZA



CONSTRUCCIONES EXCAVACIONES
ITURRIOZ S.A.
 Polígono Eziolaza 24-B
 943 18 75 56 Idiazabal

Preso baten memoriak

Abenduaren 20 zen, eta ni egunero bezala nire gela ilun eta hotzean nengoen, bakardade eta isiltasun batez inguraturik. Egunero egunero txirrinak jo eta gosaltzera jais-ten ginen, egunero berdina zen, esne edo kafe baso-bat madalena edo gailitez lagundua. Baina alai nengoen, hilabete barru ka-lean izango bainintzen, nire familia eta lagu-nez inguraturik, be-rriro ere bizitza normal eta lasai bat eramanez, zo-rioritsu biziz.

Egunero bezala nire kar-tzelako lagunekin elkartu nintzen goizak elkarrekin pasa-tzen baitgenituen kirol saiotsoren-bat eginez. Goizeko kirol aldiaren ondo-ren bazkaltzera joaten ginen.

Arratsaldeko orduak erraz joaten zitzaizkigun au-rerra, Euskaldun guztiok gure baratzen inguruan elkar-tzen baitginen, bata besteari istorioak kontatuaz. Baina egun hura desberdina izan zen; asteen bi edo hirutan nire fami-lia ni bisitatzera etortzen zen, beraz beraiekin pasatzen nituen arratsaldeak. Ikaragarritzko gogoa izaten nuen egun haiek iris-teko, beti neukan gogoa nire senide eta lagunekin tarte eder bat pasatzeko, beraiek kalean gertatzen ari zena kontatuaz.

Egun hura desberdina zela diot, nire gurasoak etorri baizitzaiz-kidan bisitan, egun horretan kontatu bait nien aste batzuk ba-rru kalean izango nintzela, aste batzuk barru beren semea be-rriro ere beraien artean izango zutela.

Prest nengoen nire ziegako atea jo zutenean, ordua zen, minutu batzuk barru nire gurasoak ikusiko nituen, hainbeste itxaron izan nuen momentua iritsi zen.

Atetik atera eta pasiluaren bukaeran nire ama nire zain ikusi nuen, beti zeraman irribarre handi bat ahoan marrazturik zuela, bizitzako momentu hoberenetako bat izan zen hura, hiru hila-bete nindoan beraiek ikusi gabe eta azkenean iritsi zen unea. Pa-rebat musuren ondoren gure gelatxora sartu ginen, 22 garren gela zen, nire gurasoekin pasatako une gehienak bertan izan zi-ren eta unerik hoberena pasako zuten gelatxoaren zenbakia izango zen, beraien buruetan hil artean gogoratuko zuten zen-bakia. Eseri eta nire alaba eta emaztea zer moduz zeuden kon-tatu zidaten, egun batzuk barru ni bisitatzera etorriko baitziren. Bi ordu eta erdi pasa zirenean

Esan nien hilabete barru beraien semea berriro ere kalean iku-siko zutela 15 urtez hainbeste itxaroten egon nintzen momen-tua iritsi zela ohartu nintzenen, beraz hitza hartu eta konta-tzen hasi nintzen.

Gelatxoa isiltasun handi batean geratu zen, baso bakarti ba-teko isiltasun berbera, inork ez zuen hitzik egin, baina bat ba-tean nire gurasoak elkar begiratu eta biak negarrez hasi ziren, poz handia nabari nuen beren begietan eta besarkada luze eta handi batean bukatu genuen bisita.



Aranburu Harategia

Kale Nagusia, 34

20214 Segura

Tel: 943 801 014

Egunen joan etorriarekin batera geroz eta urduriago jartzen joan nintzen, geroz eta gutxiago geratzen zen leku hartatik alde egiteko. Bat batean ordea atsekabeak inguratu zuen nire gorputza, bertan egin nituen lagunak denbora askoan ikusi ezing nituelako.

Egunen poderioan nire ziega iluna hutsa geratzen joan zen, baina liburu bat uztea pentsatu nuen, hurrengo presoak bere lehen eguna indarrez hasi zezan, eta ez atsekabez. Atzera begiratu eta paretan itsatsitako nire lehen argazkia begiratu nuen minutu batez, nire alaba, emaztea eta ni geunden argazki hartan, bertan 2 urte besterik ez zituen nire Ane txikia jada handi egin zen eta nik bere haurtzaro osoa galdu nuen. Gerturatu eta eskuetan hartu nuen, orduan sentitu nuen benetan itzultzearen poza.

Urtarrilaren 21a zen eta 24 ordu besterik ez zitzaizkidan geratzen hura utzi eta Euskal Herriko mendiak 15 urte beranduago berriro ikusteko. Esnatu, ziega ilun hura alde batetik bestera begiratu eta kanpora irten bezain laster ikusi nituen, 15 urte haue-tan nire pena eta zorionak nirekin batera bizi izan zituzten per-sona bakarrak, nire kartzelako eta betirako izango nituen lagunak. Besarkada handi bat eman nion bakoitzari eta gosaltzera jaitsi ginen, bertan beste lurraldetako lagun batzuekin eseri eta besarkada banaren ondoren nire baratza kuttuna az-ken aldiz ikustera joan nintzen.

Eguna nire lagunekin pasa nuen, azken hitzak elkarri esanaz. Az-kenean afaltzeko orduaren aurretik nire lagunetan lagunenari nire baratza oparitu nion, Joxemariri. Berak poz handiz hartu zuen nire oparia eta oso ondo zainduko zuela esan zidan.

Iritsi zen, goizeko bederatziak ziren eta prest nengoen, hama-rretan irtengo nintzen eta azken agurra eman nien lagun eta funtzionarioei. Furgoneta gris bat neukan kanpoan Euskal He-rriraino eramango zidana, sartu eta eserleku batean eseri nin-zen 5 orduko bidaiaz gozatzeko asmotan.

Azkenean EUSKAL HERRIA irakurri nuen, Mar-tuteneko kartzelara eraman niniduten eta bertan nire senide eta lagunak nituen nire zain. Furgoneta gri-setik jaitsi eta nire alaba eta emaztea izan ziren besarkatu ni-tuen lehen pertsonak eta on-doren nire gurasoak. Denak hun-kiturik zeuden, saltoka, kantatuz, gure ikurrina airean zutela. Momentu izugarria izan zen, eta argazki askoren ondoren bazkaltzera joan ginen. Bi orduren ondoren eta nire anaiaren autoan gindoazela nire herrira iritsi ginen, Beasainera, plaza osoa jen-dez bete zegoen denek ikurrina bat zuten eskuetan eta abesten hasi ziren. Momentu hunkigarria izan zen eta banan banan ezagun guztiei besarkada bana eman nien.

Egunen joan eta etorrian kezka geroz eta ugariagoak ziren, nire kezka handienetakoa bizitza berrira nola moldatuko ote nintzen jakitea zen, baina dena oso ondo joan zen. Jendeak asko la-gundu zidan bizitza berrira nola egin erakutsiaz eta segituan be-raietako bat bihurtu nintzen. Bi urte horiek nire bizitzako one-nak izan ziren, nire burua kalen ikusten baitnuen egunero egunero eta horrek egunak alai eta pozik hasteko indarrak eman zizkidan urte askotan.

Orain da, bi urteren barruan nire bizitzaren istorioa kontatzeko gai naizen eguna, pasatako une hunkigarri eta zoriontsu guztiak gogoratzeko eguna eta mundu osoari preso izatea zer den era-kusteko eguna. Hauek preso ohi baten bizitzako zati zoriontsue-netakoak dira, hauek dira preso baten memoriak!

IRATI SAEZ DE EGILAZ JUNQUERA



Lirain Lurrindenda

Garagartza plaza, 1

20240 **Ordizia**

Tel: 943 805 327

San Inazio kalea, 12


20200 **Beasain**

Tel: 943 888 730

San Frantzisko paselekua, 8

20400 **Tolosa**

Tel: 943 650 239



Zeraingo plaza

Beti egoten naiz bertara begira,
toki eder eta zer esan handikoa,
nire txikitako egoitza,
nire adiskideekin jolasteko gunea.

Zuhaitz polit eta ederra bertakoa,
arte izena duena,
lekua arte bihurtzen duen giltza,
aurreko zuhaitz hautsiaren
ondorengo bizia.

Bertako lur ikerketak,
makila fin horien lanketak,
autoen autopistak,
erreken ibilbideak.

Pilota partidak,
futboleko ostikoak,
soka-salto jokoak,
zer ez da gertatu bertan?
Zeraingo plaza
nire haurtzaroa bezain
ederra izan da beti.

MAIALEN ALUSTIZA ASEGINOLAZA

DENBORAPASAK

UXUE SAEZ DE EGILAZ JUNQUERA

AURKITU HIZKI ZOPA HONETAKO ZAZPI ANIMALIEN IZENAK.

A	E	D	G	C	Z	D	T	J	K	O	L
M	O	O	P	I	R	A	F	S	C	H	T
B	I	Z	U	R	D	E	A	F	K	A	U
X	N	D	T	A	S	I	R	T	I	L	K
F	D	G	B	Z	T	D	U	R	S	A	F
L	K	A	T	U	A	M	N	D	C	R	U
J	L	D	S	B	G	E	L	F	R	S	A
T	F	G	N	L	S	A	E	Z	C	J	L
N	L	O	J	U	Z	O	G	D	E	T	U
B	T	X	I	M	E	L	E	T	A	I	U
C	J	E	U	T	D	B	M	X	K	L	G
F	U	S	T	E	T	U	J	A	L	P	E
J	N	D	H	X	R	T	U	K	T	G	P
K	T	L	G	D	O	S	R	U	P	O	L
S	X	H	T	P	G	R	D	R	D	A	T
G	I	J	S	R	F	B	I	R	D	T	H
L	A	O	K	C	B	K	I	A	T	S	A

ERANTZUNAK:

Txakurra, Izurdea, Tximeleta, Katua, Zaldia, Untxia eta Txoria.



Eskerrik asko

Zerain Dezagun Fundazioari



ZERAINGO UDALA

Eskerrik asko

Zeraingo Udalari



Eskerrik asko

Liztormendi Elkarteari





Elikadura osasuntsu eta orekatua

Gure baserriko belardietan
betiko eran hazia

Eusko Label egiaztatgia duen
oilasko bakarra

Haragi fin, zaporetsu eta xamurra



Lumagorri S.L.

Zabalegi aldea

20214 ZERAIN (Gipuzkoa)

943 800 100 www.lumagorri.com

LumaGorri